

Balio proposamena

Bizkaisia S.L beste enpresekiko desberdina da. Ez dugu bideratzen enpresa helburu ekonomikora, baizik eta helburu sozialera; izan ere, gure helburu nagusia jendea laguntzea da. Gainera, adin guztietako pertsonentzat prestatuta dago. Beste produktuekin konparatuz, geure produktuak besteek ez daukaten ezaugarriak biltzen ditu. Jarduera ugariren planifikazioa egiten du eta erabiltzaile bakoitzaren nahien arabera ere filtroak aplikatzen ditu bezeroariegokitzen zaizkion jarduerak egin ahal izateko.

Facebook-en “horma” antzeko bat egongo da. Bertan erabiltzaileek bat-bateko jarduerak zintzilikatu ahalko dituzte. Adibidez, bost lagunek musika talde bat badaukate eta herriko plazan doan izango den kontzertu bat prestatzen badute, horma horretan aplikazioa duten erabiltzaile guztiek ikusi ahal izango dute plan hori eta beratar hurbiltzeko aukera izango dute, horrela, bi aldeek onura lortuko dute; musika taldekoak audientzia irabaziko dute eta joaten den jendeak plan desberdin bat egingo du.

Gainera, Bilboko eta Bilbo inguruko diskotekek (gurekin kolaboratu nahi dutenek) aplikazio honen bitartez sarrerak saldu ahal izateko eta beraien festak promozionatzeko aukera izango dute. Denda lokalak ere bere deskontuak eta berriak erakutsi ahal izango dute.

Newsletter bat proposatzen dugu mugikorra ez duten pertsoneri, beraien etxeetara liburuxka bat (papel birziklatuarekin) ailegatzeko informazio guztiarekin. Ideia hau adin nagusiko jendearentzat bideratuta dago. Informazioa berria, posta elektronikora ailegatuko da papera aurrezteko, eta ingurumenarekiko arduraz jarduteko.

